

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Filmetako agertokiak Nafarroan egun batez aktore bilakatzeko

Aurten, bertako artisauek osatutako menuaz gozatzeko aukera izango da filmazioekin amaitzean

Osteguna, 2018.eko uztailak 19

Nafarroak egun batez aktore bihurtzeko aukera eskaintzen die, berriro ere, bisitariei gure erkidegoan burutu diren hiru pelikulen filmazioan parte hartuz: 'Zugarramurdiko Sorginak', 'Robin eta Marian' eta 'Anacleto, isileko agente', Nafarroako eszenatoki zinematografikoenetan



Imanol Arias "Anacleto Agente Secreto" ren filmatzean.

esperientzia paregabea bizitzeko aukera.

Igande oro, uztailaren 22tik irailaren 16ra arte, turistek akelarre baten parte izan daitezke [Zugarramurdiko Leizeetan](#), Álex de la Iglesiaren 'Zugarramurdiko Sorginak' filmean bezala; Sean Connery eta Audrey Hepburn aktoreen antzera 'Robin eta Marian' filmean, 'Sherwood' basotik zamalkatuz [Urbanan](#); [Errege Bardeako Natura Parkean](#) isileko agente izan daitezke, 'Anacleto, isileko agente' filmean Imanol Ariasek egin bezala. Filmazioen ondoren, aurten nobedade dastagarri bat egongo da: bisitariak [tokiko artisauek](#) osatutako menu zapoetsua dastatu ahal izango dute eta produktu horiek eskuragarri egongo dira filmazio gunean.

Menu honek barne hartzen ditu hesteki-taulak, El Bordón txistorra, basurde txorizo eta saltxitxoia; Basatxerri urdaiazpiko taulak ogi eta tomatearekin; Katealde foie eta Ahate mousse taulak; Erronkari eta Idiazabal J.D. gazta-taulak eta behi ekologikoa; Tuterako alkatxofa eta Lodosako piper J.D. pintxoak; Urrutia biskotxa eta Cascanteko teilak. Uraz gain, edateko Nafarroako ardo beltza, gorria eta zuria eta Larraldea sagardoa izango dira aukeran.

['Egun batez Aktore Bisita Gidatuak'](#) programarekin, Turismo eta Merkatal Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroara hurbiltzen diren bisitarien esperientzian aldaketa bat sorrarazi nahi du, kontenplazio pasibotik bizipen pertsonalizatura pasa daitezzen. 2018-2025 Turismo Plan Estrategikoan jaso bezala, oroimenaren eta Nafarroako ondare-balioen interpretazio esperientziari mesede egin nahi zaio, datu gehigarriak eta irudi birtualak eransten dituzten errealitate areagotuko aplikazioen garapenaren bitartez. Historia eta ondare kulturala hobeto ulertzeko eta

zinemagintza lanak aurkitzen lagunduko dutenak, alegia.

Zure oroigarri pelikularekin amaitzen diren bederatzi hitzordu

Osotara 9 hitzordu izango dira eta plazak, mugatuak. Horrenbestez, alde zuzenetik erreserba egitea komeni da. Prezioa 10€ pertsona bakoitzeko izango da eta 6€ adingabekoentzat, 65 urte baino gorakoentzat eta langabeentzat. Lehenengo filmazioa 'Robin eta Marian' izango da, uztailaren 22an. Bilgunea Urdiaingo Errotan izango da eta grabaketarako gutxienez hiru pertsona behar dira. Film bera, abuztuaren 26an eta irailaren 2an errepikatuko da. Uztailaren 29an, abuztuaren 19an eta irailaren 16an 'Anacleto: isileko agente' filmatuko da. Bilgunea Errege Bardeetako Informazio puntuan izango da. 'Zugarramurdiko Sorginak' filmaren grabaketa, berriz, abuztuaren 5 eta 12an eta irailaren 9an garatuko da. Taldea Sorginen Museoan bilduko da. Bi film hauentzako, gutxienez 10 pertsonen parte hartzea beharrezkoa da.

Jarduera turistikoak antolatzen dituzten hiru enpresa izango dira bisita gidatu hauetako arduradunak, [Nafarroako Zinema Bidea](#)-ren inguruko azalpen labur batekin hasiko direnak, 23 filma grabatu diren 13 eszenatoki biltzen dituen ibilbidea hain zuzen ere. Taldeek antzeztuko duten eszena irudikatuko da errealitate areagotuko euskarri baten bitartez. Ondoren, hobeto interpretatzeko eta taldea kohesionatzeko balioko duten dinamika dramatikoak proposatuko zaizkio taldeari, eta filmazioa hasiko da.

Oroigarri moduan, emaitza editatu eta posta elektronikoz bidaliko zaie parte hartzaileei. Azkenik, 'Egun batez aktore Bisita gidatu'-etan parte hartu dutenei inkesta bat eskainiko zaie eta, hori betetzen duten artean, 'Reyno Gourmet' produktu-sortaz osatutako saskia zozkatuko da.